Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

# Berrazterzeko Errekurtso ■ Recurso de Reposición

## Eskatzailea ■ Solicitante

| **Izen-deiturak edo Sozietatearen Izena** ■ Nombre y Apellidos o Razón Social | | | | | **IFZ** ■ NIF |
|---|---|---|---|---|---|
| **Helbidea (kalea)** ■ Domicilio (calle) | **Zk.** ■ Número | **Letra** ■ Letra | **Eskail.** ■ Escalera | **Solairua** ■ Piso | **Aldea** ■ Mano |
| **Udalerria** ■ Municipio | **Herria** ■ Localidad | | **Lurraldea** ■ Provincia | | **PK** ■ CP |
| **Telefonoa** ■ Teléfono / **Mugikorra** ■ Móvil | **Posta Elektronikoa** ■ Correo Electrónico | | | | |

## Ordezkaria (pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da) ■ Representante (obligatorio para las personas jurídicas)

| **Izen-deiturak edo Sozietatearen Izena** ■ Nombre y Apellidos o Razón Social | | **IFZ** ■ NIF | | **Telefonoa** ■ Teléfono | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Helbidea (kalea)** ■ Domicilio (calle) | **Zk.** ■ Número | **Letra** ■ Letra | **Eskail.** ■ Escalera | **Solairua** ■ Piso | **Aldea** ■ Mano |
| **Udalerria** ■ Municipio | **Herria** ■ Localidad | | **Lurraldea** ■ Provincia | | **PK** ■ CP |
| **Protokolo Zk.** ■ Nº Protocolo / **Data** ■ Fecha | **Notarioa** ■ Notario | | | | |

## Aurka egiteko egintza ■ Acto a recurrir:

## Berraztertzeko Errekurtsoaren gaia diren Zerga Zorrak ■ Deudas Tributarias sobre las que se realiza el Recurso de Reposición

| **Likidazio Zk.** Nº liquidación | **Zerga** Impuesto | **Ekitaldia** Ejercicio | **Hasierako aldia** Periodo inicial | **Azkeneko aldia** Periodo final | **Mugaeguna** Vencimiento | **Zenbateko** Importe |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

## Azaltzen du ■ Expone:

## Eskatzen du ■ Solicita:

**Ez baduzu nahikoa leku, jar ezazu zenbat alegazio orri erantsi duzun**
Si no tiene espacio suficiente, indique el número de hojas adicionales de alegaciones que se adjuntan ☐

## Itzulketa-kontua ■ Cuenta devolución:

| **Entitatea** ■ Entidad | **Bulegoa** ■ Oficina | **KD** ■ DC | **Kontu zk.** ■ Nº Cuenta |
|---|---|---|---|
| | | | |

**Data eta eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura** ■ Fecha y firma del solicitante o representante

RE: 18/258

## INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Eredu hau, nahi izanez gero, administrazioarekiko diru-erreklamazioa aurkeztu aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkezteko erabili ahal izango da.

Gogoratu ezin direla batera aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa eta administrazioarekiko diru-erreklamazioa. Errekurtsoa aurkezteko ezarritako epean, berraztertzeko errekurtsoa eta administrazioarekiko diru-erreklamazioa jartzen badira (biak ere egintza berberaren aurka), lehenengo aurkeztu dena izapidetu egingo da eta bigarrena onartezintzat joko. Biak aldi berean jartzen badira, berraztertzeko errekurtsoak izango du lehentasuna.

Hilabete izango da berraztertzeko errekurtsoa jartzeko, errekurritu daitekeen egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aldizka mugaeguneratzen diren eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, errekurtsoa ordainketa egiteko borondatezko aldian jarri ahal izango da, edo hilabeteko epean, aipatu aldia amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren lekuetako edo erregistroetako edozeinetan.

### Ordezkaria

Ordezkari baten bitartez ari bazara, eskatutako identifikazio datuak bete beharko dituzu, baita horiei dagokien dokumentazioa erantsi ere. Ordezkaritzaren gaian aldaketarik baldin badago, Foru Ogasunari jakinarazi beharko zaio eta, hala badagokio, horren frogagiriak erantsi.

### Aurka egiteko egintza

Gune honetan, aurka egiten zaion egintza identifikatzeko balio duten datuak jarri behar dituzu. Jakinarazitako egintza bat baldin bada, igorritako dokumentuan aurki ditzakezu datu horiek. Identifikazioa errazteko, aurka egindako egintzaren fotokopia aurkez dezakezu, hala nahi baduzu.

### Adierazten du

Gune honetan, egitatezko nahiz zuzenbidezko gaiei buruz egiten dituzun eta zure errekurtsoaren oinarri diren alegazioak adieraz ditzakezu. Zure alegazio guztiak azaltzeko nahiko lekurik ez baduzu, erantsi orriak.

### Eskaera

Berraztertzeko errekurtsoa ezarritako epean eta eran aurkezteak, aurka egindako egintzaren betearazpena etengo du, bermea jarri beharrik gabe, baldin eta:

a) Zerga zorra nork bere borondatez ordaintzeko epealdian badago edo premiamendu probidentziaren aurka errekurtsoa jarri bada, kasu batean zein bestean borondatezko epealdia amaitutakoan ordaintzeko dagoen zorraren zenbatekoa 3.000 euro edo gutxiago izanez gero.

b) Zerga arloko zigor baten aurka berraztertzeko errekurtsoa jartzen bada, administrazio bidean irmoak ez diren bitartean.

c) Oker aritmetiko, material edo egitatezkoren bat egon daitekeela ikusten bada.

Gainerako kasuetan (3.000 € baino gehiagoko zorrak direnean), aurka egindako egintza eteteko beharrezkoa izango da dagokion bermea jartzea, era hauetako batean:

- Eskudirutan edo balore publikotan gordailua egitea, gordailu kutxa orokorrean.
- Abal edo fidantza solidarioa, banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emana.
- Fidantza pertsonala eta solidarioa.
- Kauzio asegurua.
- Aurretik adierazitakoak ez diren bermeak.

Eskaera Interneten bidez aurkeztuz gero:

- Abala behar izanez gero, eskaerari erantsiko zaio eta gero jatorrizkoa Ogasunean aurkeztu beharko da gehienez ere 5 egun baliodunen buruan, eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Adierazitako epea bukatuta, abala aurkeztu ez dela iritziko da, horrek dakartzan ondorioekin (zorraren etendura ukatzea).

Errekurtsoari ezezkoa emanez gero, etendurak dagozkion berandutze interesak sortuko ditu. Horiek interesdunari jakinaraziko zaizkio, ordaindu ditzan.

### Itzulketarako kontua

Itzulketa eskatuz gero, eremu hau nahitaez bete beharrekoa izango da, eta entitate laguntzaile batean irekitako banku kontuaren zenbakiaren hogei digituak espresuki idatzi beharko dira (Bankuaren edo Kutxaren kodeak, bulegoarenak, kontuaren edo libretaren zenbakia eta bezero kodea edo kontua).

**LEGE OHARRA. DATUEN BABESA**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Zergadunen Fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduak zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dira.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Erregelamendu horretan aitortzen diren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, haien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba).

Informazio gehiago:
**http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua**

## INSTRUCCIONES DE CUMPLIMENTACIÓN

Este modelo podrá utilizarlo, si así lo desea, para presentar el recurso de reposición previo a la reclamación económico-administrativa.

Recuerde que no podrán simultanearse el recurso de reposición y la reclamación económico-administrativa. Cuando en el plazo establecido para recurrir se hubieran interpuesto recurso de reposición y reclamación económico-administrativa que tuvieran como objeto el mismo acto, se tramitará el presentado en primer lugar y se declarará inadmisible el segundo. Si se hubieran interpuesto simultáneamente, se tramitará el recurso de reposición.

El plazo para la interposición de este recurso será de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación del acto recurrible.

Tratándose de deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva, el recurso podrá interponerse durante el período voluntario de pago o durante el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de finalización de aquél, en cualquiera de los registros y lugares señalados en el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

### Representante

En el caso de que actúe por medio de representante, deberá cumplimentar los datos de identificación que se solicitan así como aportar la documentación correspondiente. Si se produce una modificación en el tema de la representación, se deberá poner en conocimiento de la Hacienda Foral, adjuntando, en su caso, la documentación justificativa correspondiente.

### Acto a recurrir

En este espacio deberá hacer constar los datos que permitan identificar el acto que se recurre. Si se trata de un acto notificado podrá localizar dichos datos en el documento remitido. Para facilitar la identificación, si lo desea, podrá aportar fotocopia del acto recurrido.

### Expone

En este espacio podrá indicar las alegaciones tanto sobre cuestiones de hecho como de derecho, que formula y en las que fundamenta su recurso. Si no dispone de espacio suficiente para exponer la totalidad de sus alegaciones, utilice hojas adicionales.

### Solicita

La interposición en tiempo y forma del recurso de reposición suspenderá, sin necesidad de aportar garantías, la ejecución del acto impugnado cuando:

a) La deuda tributaria estuviese en período voluntario de pago o se hubiese interpuesto el recurso contra la providencia de apremio, y siempre que, en ambos casos, la cuantía de la deuda pendiente a fin del período voluntario de ingreso fuese igual o inferior a 3.000 euros.

b) Se interponga recurso de reposición contra una sanción tributaria mientras no sean firmes en vía administrativa.

c) Se aprecie que se ha podido incurrir en error aritmético, material o de hecho.

En el resto de supuestos (deudas mayores de 3.000€), para la solicitud de la suspensión del acto impugnado será necesario la presentación de garantía correspondiente entre una de estas modalidades:

- Depósito de dinero efectivo o en valores públicos en la Caja General de Depósitos.
- Aval o fianza solidario prestado por Banco, Caja de Ahorros, Cooperativa de Crédito o Sociedad de Garantía Recíproca.
- Fianza personal solidaria.
- Seguro de Caución.
- Otras garantías distintas a las antes mencionadas.

En el caso de presentación de la solicitud vía Internet:

- Si se necesitase aval se anexará como documento adjunto a la solicitud, y posteriormente el original deberá ser entregado en Hacienda en un plazo máximo de 5 días hábiles contados desde el día siguiente a la presentación de la solicitud. Finalizado dicho plazo se entenderá como no presentado el aval con sus correspondientes consecuencias (denegación de la suspensión de la deuda).

Si el recurso resultase desestimado la suspensión generará los correspondientes intereses de demora que serán notificados al interesado para que proceda a su abono.

### Cuenta devolución

En caso de solicitud de devolución este campo será de cumplimentación obligatoria debiendo hacerse constar expresamente los veinte dígitos del número de cuenta bancaria abierta en Entidad Colaboradora (pertenecientes a los Códigos de Banco/Caja, la sucursal, el número de cuenta o libreta y el código o cuenta cliente).

**AVISO LEGAL. PROTECCIÓN DE DATOS**

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (Reglamento General de Protección de Datos), le informamos que los datos que nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Contribuyentes titularidad de la Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión, inspección y recaudación de los diferentes tributos.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el citado Reglamento dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Álava).

Para más información:
**http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado**